

noaia

**Hurbilagoren kanpaina:
'Preziyo Juxtua' asmatzen
duenarentzat saria**

**Foru Aldundiaren esanetan,
erraustegia "normaltasun osoz"
ari da lanean**

**Euskarazko milaka produktu
topatuko dituzue katalogoa.eus
web orrialdean**



**NOAUA! Kulturaldia
geldiaraziko duen birusik ez da jaio**



pikabea

**ASEGURU ARTEKARITZA
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01

pikabea@pikabeaaseguruak.com

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS

The advertisement for Pikabea features a logo with a blue triangle and a black circle. The company name 'pikabea' is in a large, bold, blue font. Below the logo, a white box contains the text 'ASEGURU ARTEKARITZA ETA GESTORIA ZERBITZUA' in blue. At the bottom, contact details are provided in blue text, including a phone number, a mobile number, an email address, and a WhatsApp icon. The address is listed at the very bottom.

Albisteak iruditan

‘Preziyo Juxtua’ zein den asmatuko al zenuke?

Hurbilago merkatari eta ostalarien elkarteak ‘Preziyo Juxtua’ izeneko kanpaina jarri du martxan. Argazkiko eskaparatean dauden produktu guztien preziora gehien hurbiltzen direnek saria eskuratuko dute.

Eskaparatea Kontzeju Zarra 13 kaleko lokalean topatuko duzue. 2015ean, Kilometroak Gattunk dendaren egoitza izan zen toki berean.

Joko-arauak

Hurbilagok planteatu duen jokoaren arauak hauexek dira:

- Erosi Hurbilago elkarteko saltokietan.
- Eskuratu parte hartzeko txarteltxoa.
- Eskaparatearen balioa kalkulatu, baina pasa gabe.
- Txarteltxoa bete eta Hurbilago dendako kutxan bota edo



2015ean Kilometroak denda egon zen lokalean topatuko dituzue produktuok. Hurbilagoren kanpaina abenduaren 12ra arte luzatuko da.

SARIKETAREN MEKANIKA

“Erosi Hurbilago dendetan, txarteltxoa eskuratu, estimatutako prezioa ipini eta dendako kutxan bota”

bidali balioa preziojuxtua. hurbilago.com Internet helbidearen bidez.

Kalkulatu prezioa, “baina pasa gabe”

“Preziora gehien hurbiltzen direnek, pasa gabe, eskaparateko beraien oparia aukeratuko dute”, kanpainaren sustatzaileek aditzera eman dutenez.

Sariketa hau bideratzeko, Hurbilagok Usurbilgo Udaltzaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

Hobari berriak, Gertu txartelarekin

Usurbilen bizitzeaz gain, herrian bertan erosteak sariak dakartza beste behin, Hurbilago merkatari eta ostalarien elkartearen eskutik. Hurbilagok, Udaltzarekin, Rural Kuttarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin sustaturiko Gertu txartela baliatu behar duzue horretarako Hurbilagoko kide diren herriko saltokietan eta azaroaren 30era arte.

Erosketak egin, erosketok Gertu txartelarekin ordaindu eta trukean 50 eurora arteko hobariak irabazteko aukera izango duzue. Usurbilgo ostalari eta merkatarien elkarteak abian jarritako ekimena da honakoa, baina ez bakarria. Adi datozen astei. Herrian bizi eta erostea gogotik sarituko da urte amaiera honetan.

Laburrean

Covid-19 kasuak apaltzen

Iragan aste osoan 12 Covid-19 kasu atzeman zituen Osasun Sailak Usurbilen. Azaroaren 22ra arte, 201 kutsadura kasu eta hildako bat eragin ditu Covid-19ak udalerrri honetan.

Gripearen aurkako txertoa

Iaz baino %50ak gehiagok jarri du gripearen aurkako txertoa aurten. Kanpaina beste 3 astez luzatuko da gutxienez. Hitzordua hartzeko anbulatoriora deitu; 943 36 20 13.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaledea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritzalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Kezkatuta nabil, arduratuta, gauza batzuk ez ditudalako ulertzen. Pertsona omen da harr berean estropezu egiten duen animalia bakarra, eta oraingoan sinetsia nago hala dela. Gaur egun, onartzen dugu proba-errorea edo proba-akatsa dela gauzak ikas-teko bidea, baina... zenbat aldiz egin behar ote da proba eta zenbat aldiz akats berean erori Covid-19a dela-eta umeein hartzen ari diren neurriekin?

Hazi Hezi haziera eta heziketa aldizkariaren 34. zenbakian Felix Zubia Donostia ospitaleko Zainketa Intentsiboen Unitateko medikuak dio koronabirusa berria dela, ezezaguna, eta esperientziaz ikasten ari garela, askotan pauso okerrak emanez ere bai. "Hasiera hartan fokua haurrengan hainbeste ezartze hori izan da hutsetako bat; martxoan uste zen edo bederen hala zabaldu komunikabideetan, haurrak beste giza taldeak baino birus-erolegoak zirela, baina gerora ebidentziek erakutsi dute ez dela hala; denborak erakutsi du, baita ere, haurrengan ez duela eragin latzegia Covid-19ak, eta haur gehienek sintoma gabe pasatzen dutela gaixoaldia. Hala ere, eurak izan dira neurri zorrotzenak

Proba-errorea, proba-errorea, noiz arte?



"Zenbat aldiz egin behar ote da proba eta zenbat aldiz akats berean erori Covid-19a dela-eta umeein hartzen ari diren neurriekin?"

AINHOA AZPIROTZ

"Helduei onartzen zaizkien gauza batzuk umeei eta gazteei ukatu egiten zaizkie"

pairatu dituztenak, eskolak eta jolastokiak eurei itxi zitzaizkien lehendabizi, eta helduak lanera eta erosketak egitera irten zitezkeen bitartean, konfinaturik luzeen egin zutenak izan ziren".

Zubiaren esanetan, haurrekiko eta helduekiko harturiko erabakiak ez dira orekatuak izan; "Burugabekeria batzuk ere egin ziren, eskolak itxi zituzten egunean pintxo potea izan zen, adibidez. Edo haurrak etxean itxita denbora gehiegiz mantendu ziren, helduak kalean genbiltzan bitartean".

Aldizkari berean Gontzal Martinez de Hidalga pedia-

trak halaxe dio: "Pandemiaren hasieran ezjakintasunagatik akats asko egin izan dira. Umeein, bereziki, gauza asko onartu ziren inolako frogarik gabe. Arnas-bideetako beste infekzio batzuetan, gripean besteak beste, umeak dira kutsatzen diren lehenak eta, hortik abiatuta, suposizio okerrak egin ziren. Orain badakigu ez dela horrela. Umeei pairatu zuten konfinamendu zorrotza akats larria izan zen".

Burugabekeriak. Suposizio okerrak. Akats larria. Hitz horiek darabiltzate mediku horiek lehenbiziko neurriak deskribatzeko. Orain proba gehiago eta ebidentziak daude, eta halere, lehengo lepotik burua?

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak dekretu bat atera zuen azaroaren 9an aire zaba-

leko jarduera fisikoa eta kirola arautzeko. 37 puntu ditu. 16.nak honela dio: "Ikastaroak edo jarduerak taldeka egin daitezke? Gimnasioetan, kirol-klubetan, igerilekuetan eta kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak bakarrik egin ahal izango dira, betiere maskara erabiliz, 6 laguneko taldeetan gehienez, eta aforoa edukieraren ehuneko 40ra mugatuta badago".

Baina, horrek ez du balio umeentzat, 34. puntua dator hori esatera: "Zein jarduera egin dezakete eskola kirolean parte hartzen duten umeei? Eskola Kirolaren Programan izena emanda dauden erakundeetan (kirol-klubetan, guraso-elkarteetan eta ikastetxeetan) irakaskuntzako barne-jarduera guztiak (entrenamenduak) bertan behar eratzen dira".

Zergatik sartu behar da 34. puntua 6 eta 16 urte bitartekoentzat? Helduei onartzen zaizkien gauza batzuk umeei eta gazteei ukatu egiten zaizkie, jakin arren bidegabeberia eta akats larri izan direla. Zergatik egiten da berriro ere gauza bera?

Gero ez daitezela etorri esanez pantailen aurrean ordu gehiegi pasatzen dituztela ume eta gazteek eta gizentasuna arazo orokor bihurtzen ari dela.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde



Zumartegiko ibaiertza, “utzikeriaren ikur”



Zumartegi industrialdeko ibaiertza egoera kaxkarrean dela dio argazkia bidali digun herritarrak. “Udalak, zaintzarik ez egiteaz gain, inguruan biltzen dituen orbelak, hortxe botatzen ditu ibaira”.

Herritar batek helarazi digu ondoko argazkia, Zumartegi industrialdea azken aldian nola ikusten ari den deskribatzearekin batera.

“Zumartegiko industrigu-

neko ibaiertza zerbait bada, utzikeriaren ikurra da. Pasea-leku eder bat izan zitekeen, leku laua eta itzala baita. Baina espaloia beharrean adokinak pilatutako paseoa da. Ibaiertzean hondakinak non-nahi daude, zaintzarik gabe-

ko eremua baita. Eta gainera, udalak, zaintzarik ez egiteaz gain, inguruan biltzen dituen orbelak, hortxe botatzen ditu ibaira. Eredu izan behar duena, bera okerren. Eta urteak daramatza, horrela jokatzen Udalak”.

Isurketa

Anerrekara

Herritar batek NOAA!ra helarazitako ondoko argazkian, Anerreka ikus dezakezue, Ugartondon eraikitzen ari diren etxebizitzaren lur eremutik gertu igarotzen den zonaldea. Obrako hodi batetik eginiko isurketa dela ohartarazi digu herritar honek.



Obrako hodi batetik eginiko isurketa dela ohartarazi digu herritar batek.

Liztor jasa Aginagan

Irudi benetan ikusgarria, herritar batek Aginagatik NOAA!ri helarazi diona. Begi bistan dituzuenak liztorrak dituzue, asiar famatu horiek. Inoiz baino gehiago ikusten ari dira Aginaga aldean; irudiotan dituzuen horiek “5 egunetan Aginagan ehizatuak” dituzue. “Non ote dira gure erleak?”, galdetzen du ondoko irudia helarazi digun herritarrak.

Erle Egunik ez aurten

Azaroko azken igandea hemen da; tradizionalki Erle Eguna-rena behar luke hilaren 29ak. Covid-19aren eraginez Artisau Azokarekin gertatu bezala ordea, ez da Usurbilgo hitzordu gozoenaren 22. edizioa ospatuko aurten.



Liztor mordoa ehizatu du albiste honi atxikitako argazkia NOAA!ra helarazi duen aginagarrak.

“Sahara askatu!”

Hori izan zen azaroaren 21ean gehien entzun-dako aldarrietako bat, “Sahara askatu”, herritar talde batek deituta Mikel Laboa plazan egin zuten elkarretaratzean. Marokok Mendebaldeko Saharako 1991ko su-etena apurtu duela salatu eta saharar herriari babes osoa adierazi zioten usurbildarrek, “Sahara SOS! Autodeterminazioa orain!” aldarripean antolaturiko mobilizazioan. Gure Eskuk ere bat egin zuen deialdiarekin.

Hitzorduan parte hartu zuten baita, Usurbilen bizi diren sahararrek. Esker onez jaso zuten herritarren babesa. Saharako ikurra eskuetan, sahararren ereserki eta musika entzunez, sahararrak goratu, txalotu eta haien askatasunaren aldeko oihuak entzun ziren mobilizazioan zehar.

Usurbilen bezala Euskal Herri luze zabalean hainbat ekimen bideratu dira egunotan. Antolatzaileek datozen deialdiei adi egoteko eskatu dute.



Larunbat eguerdian egin zen elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Antolatzaileek datozen ekimenei adi egoteko eskatu dute.

ELKARRETARATZEA

“Herri sahararra, bere kausa legítimoari irtenbidea bilatzeko, bakea eta elkarriketa nahi dituen herria dela azpimarratzen dugu”

Besteak beste, saharar herriari helarazteko elkartasun bilketa kanpaina iragarri dute.

“Erreferenduma berehala bideratu dezatela eskatzen diegu”

Espainiako Gobernuari deskolonizatzeko dagoen saharar herriarekiko erantzukizuna bere gain hartzea, eta Nazio Batuen Erakundearekin batera, herri honen “autodeterminazio-eskubidea aitortzen duen erreferenduma berehala bideratu dezatela”. Hortxe elkarretaratzea deitu zuen herritar

taldeak mobilizazio amaieran egin zituen eskakizunetako batzuk. Gogor salatu zuten, Marokoko Erresumak 1991tik indarrean zen su-etena nahita apurtu izana, azaroaren 13an, indar militarrek Guergerateko pasabidera manifestatzen ari ziren sahararren kontra egitera bidali ostean. “Fronte Polisarioak bidezko defentsa egin zuen saharar biztanleria zibila babesteko”.

Herri sahararrari eta Fronte Polisarioari erabateko elkartasuna adierazi zieten. “Herri sahararra bere kausa legítimoari irtenbidea bilatzeko bakea eta elkarriketa nahi dituen herria dela azpimarratzen dugu. Herri nekatu, zapuztu eta gogaitu bati ezartzen zaion guda berri bat da hau. 45 urte hauetan bete gabeko hamaika promesa jasan behar izan dituen. Eragindako urraketen aurrean, Marokok eta bere laguntzaileek, saharar herriaren bakearekiko eta konponbide baketsuarekiko konpromisoa ahuleziarekin nahasi dute”.

“Duintasunez bizi nahi dugu”

Duintasunez, aske bizitzeko nahiak bizirik dirau, eta horren alde borrokan segitzen du saharar herriak. Oso argi utzi zuten iragan larunbateko elkarretaratzean Usurbilen bizi diren sahararrek.

Esker ona adierazi zioten gure artean bizi diren sahararrek Usurbilgo herriak gaur eta orain arte, urte luzez adierazitako babesagatik, udalerri honetan bizitzen denbora daraman Fatimetuk zioen moduan, “justua den kausa” honen alde egiteagatik. Hamarkada luzez eragozten ari zaien autodeterminatzeko eskubidea aldarrikatzen dute. “Duintasunez bizi nahi dugu, mun-

duko gainerako herriek bezala”.

Ez dute gerrarik nahi, bakean eta aske bizi nahi dute. “Saharar herria herri baketsua da, ez ditu gerrak gustuko”. Baina argi utzi zuten, “gure lurra defendatzera derrigortuak gaude”. Hori lortzeko ari dira borrokan. “Gure herriaren alde borrokatuko dugu, gure gorputzeko azken odol tanta isuri arte”. Ez badute lortzen, Fatimetuk zioenez, hilerrian bihurtuko da euren herria eta etorkizunean hara joaten direnak jabetuko dira, bazela behin, diktadore eta erregeen mandatuetatik at, “duintasunez bizi nahi izan zuen herri bat”.

HITZA hartzeko zain

Usurbilen bizi den beste saharar batek, Mohamedek ere hitza hartu zuen, Fatimetuk adierazitakoa berresteko. “Ez dugu gerra gustuko, oso herri baketsua gara, ia 30 urtez erakutsi dugu hori”. Bizi duten gatazka, 1991n sahararrei autodeterminatzeko eskubidea aitortzen zien erreferendum libre baten bidez konpontzea adostu zen. Hiru hamarkada igaro dira ordea eta ezer ez. “29 urte darmatzagu zain”.

Bide politikoetatik lortu nahi dute herriaren askatasuna, “inor mindu gabe, inork gu mindu gabe. Baina ezinezkoa izan da”. Marokok 1991tik indarrean zen su-etena hautsi du.

Historiara jota, ez da bakean eta aske bizi nahi duen herriak sufritutako bidegabeke-ria bakarra. Mohamedek XIX. mende amaieratik bizitakoa laburbildu zuen.

100 urtetik gora borrokan dihardute eta. Baina azken hamarkada hauetan gertatu bezala, Mohamedek zioenez, “munduak Sahararen arazoari entzungor egin dio, nazioarteko ordezkari politikoek ez ikusiarena egin dute”. Saharar herriarentzat egoera jasangaintza izatera heldu da. Oihu artean, “Sahara askatu!” eskatu zuten eta espainiar estatuari, “Sahara ez dago salgai” gogorarazi zioten.

Erraustegia “normaltasun osoz” lanean da, Foru Aldundiaren esanetan

Ofizialki probaldi fasean sartu zenetik, urtea beteko du larunbatean Zubietako erraustegiak. Ordutik noiznahi kea isurtzen ikusi dugu 12 hilabeteotan, Gipuzkoako Foru Aldunditik hilabeteotan adierazi izan dutenez, %80an funtzionatu izan du.

Egunotan jakinarazi duenez ordea, Zubietako erraustegia eta gainerako azpiegiturak “normaltasun osoz” ari dira lanean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera. “Ingurumen baimen bateratua eskuratu zenetik, azpiegiturak normaltasun osoz funtzionatzen ari dira, ehuneko ehunean”, zehaztu du agerraldi batean Jose Ignacio Asensio foru ingurumen diputatuak. Azken tramite administratibo bat gauzatzeari baino ez omen zaie falta; funtzionamendu hasierako akta onartu eta sinatzea. “Hilabete honetan egitea espero dugu”, iragarri du. Kontratua berme eta baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu behar ditu Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioren teknikari eta zuzendaritzak txosten baten bidez. Hau egiteko Asensioren esanetan, ingurumen baimen bateratua eskuratu eta “planta ehuneko ehunean martxan izan arte itxaron beharra genuen”. Akta hau sinatuta, “ustiapen fase betean sartuko gara”, iragarri du. Eta orduan bai, iragarri duenez, “horren ondoren, gure



Epeari dagokionez atzerapenak egon direla onartu arren, “ez dira nabarmentzekoak izan” Jose Ignacio Asensio foru diputatuaren hitzetan.

JOSE IGNACIO ASENSIO

“Ustiapen fase betean sartuko gara. Gure asmoa inaugurazio edo aurkezpen bat egitea da”

asmoa inaugurazio edo aurkezpen bat egitea da”.

“Gure hondakinak autonomoki kudeatzeko gai gara”

Erraustegia eraikitzen amaitu eta martxan jartzeko finkatua zegoen epeari dagokionez atzerapenak egon direla onartu arren, “ez dira nabarmentzekoak izan” Asensioren hitzetan. Gipuzkoak uda partetik hona eman duen aldaketa gogorarazi du; “gure hondakin guztiak autonomoki kudeatzeko gai gara”.

Zabortezi guztiak itxiak daudela adierazi du, egun Gipuzkoak ez duela hondakinik garraiatzen lurralde honetatik kanpora. “Hiri hondakin solidoen zaborteziak ezabatu ditugu eta gipuzkoarrok sortzen ditugun hondakin guztiak materialki eta energetikoki balorizatzen ari gara”. Kudeaketa eredu aitzindaritzat jo du Asensiok egun Gipuzkoak martxan duena.

Hondakinen sorrera “irregularra”

Pandemia garai honek bizimodu aldaketaz gain, hondakinen sorreran ere eragin zuzena izan duela adierazi zuen foru ingurumen diputatuak, aurreko astean agerraldi bidez. Etxeko hondakinen sorreran ez omen da gorabehera handirik

izan. Udaberriko konfinamendu garaian bereziki eta gerora ere, hainbat jardura ekonomikoetan izandako murrizketa edota itxierak tarteko, eremu-tako hondakinak bai “asko gutxitu dira”. Bere esanetan, ezohiko urtea izaten ari da 2020a. “Oso irregularra zenbait hondakinen atalen sorreran, gure bizimodua bezala”. Jarraipena egiten ari direla adierazi dute, baina “aldaketa koiunturala” dela irizten dio. “Ikusi behar dugu zer nolako bilakaera duen”, Asensiok zioenez.

Hondakinen sorrera begi bistakoa denez, kudeaketan eragin zuzena du. Halere Foru Aldundiko ordezkariak adierazi duenez, “azpiegiturak pandemia garaiko beharrei egoki ari zaie erantzuten”.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Usurbil eremu laranjara igaro da

Badirudi, mantso bada ere, apaltzen doala Covid-19aren “bigarren olatua”. Usurbilen behintzat etenik gabe gutxitzen doaz koronabirus kasuak, baina batez ere 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia metatua. Urriaren 26an 500etik gorako intzidentzia gairatu ostean, eremu gorrian izan gara hiru aste eta erdi. 902,18rainoko intzidentzia izatera heldu ginen udalerri honetan azaroaren 4an. Ordutik etenik gabe beherantz egin du. Azaroaren 18an 443,18ko tasaraino murriztuta, eremu laranjara igaro zen udalerri hau.

Intzidentziarekin batera kasu kopuruan ere beherakada nabari zen iragan astean; azaroaren 14tik 19ra, 9 Covid-19 kasu detektatu zituen Osasun Sailak Usurbilen. Azaroaren 2tik 8ra 24 kasu, urriaren 26tik azaroaren 1era 25 eta 23 izan genituen urriaren 19tik 25era. Azaroa hasi zenetik hilaren 22ra arte 53 Covid-19 kasu zenbatu dira guztira udalerri honetan. 72 izan ziren urria osoan, 49 irailean. Martxoaz geroztik 201 kasu eta hildako bat eragin du Covid-19ak udalerri honetan, Osasun Sailaren arabera, aipatu moduan, azaroaren 22ra arte.



Eremu gorrian egon eta gero, laranjara igaro zen Usurbil iragan astean. 500etik beherako intzidentzia izatera heldu da.

COVID-19

“Martxoaz geroztik 201 kasu izan dira Usurbilen”

Intzidentziaren bilakaera:

Eremu gorrian

- Urriak 26/27: 553,97.
- Urriak 30: 712,25.
- Azaroak 2: 807,22.
- Azaroak 4: 902,18.
- Azaroak 5: 845,70.
- Azaroak 8: 775,56.
- Azaroak 9: 759,73.
- Azaroak 10: 696,42.
- Azaroak 15: 617,28.
- Azaroak 16: 585,63
- Azaroak 17: 506,49.

Eremu laranjan

- Azaroak 18: 443,18.
- Azaroak 19: 427,35.

(100.000 biztanleko 14 eguneko tasa).

Gipuzkoa, eremu gorrian

Usurbil eremu laranjan sartu zen iragan azaroaren 18an, Zumaia eta Hondarribia baino ez zeuden alerta maila berean Gipuzkoan. Biharamunean, aurreko asteetan tasa izugarri altua izan duen Urnieta igaro zen eremu laranjara. 31 udalerri zituen herrialdeak alerta gorrian. Eskualdera etorrira, Buruntzaldea ia osoak, baita Gipuzkoak ere maila gorrian segitzen du, Gipuzkoan mila kasu inguruko intzidentziarekin. Hemen eskualdeko azaroaren 19ko intzidentzia datuak:

- Andoain: 976,92 (duela astebetekoarekin alderatuta: 0,94. Azken 7 egunetan 68 kasu).
- Astigarraga: 825,24 (duela

astebetekoarekin alderatuta: 1,09. Azken 7 egunetan 26 kasu).

■ Hernani: 1259,18 (duela astebetekoarekin alderatuta: 0,76. Azken 7 egunetan 80 kasu).

■ Lasarte-Oria: 711,82 (duela astebetekoarekin alderatuta: 0,73. Azken 7 egunetan 52 kasu).

■ Urnieta: 484,65 (duela astebetekoarekin alderatuta: 0,39. Azken 7 egunetan 9 kasu).

■ Usurbil: 427,35 (duela astebetekoarekin alderatuta: 0,57. Azken 7 egunetan 9 kasu).

Alkatea: “Jarrai dezagun bide arduratsu honetan”

Nabarmenezko modukoa al-bistea dela irizten dio Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak, sare sozialen bidez egunotan adierazi duenez, “herria eremu gorritik atera” izana. Argi du, zerk lagundu duen egoera hobetzen. “Pandemiarekiko hartzen ari garen ardurak, norbanako eta kolektibo gisa, lagundu du honetan, eta hori herri oso baten lorpena da”. Orain arteko bideari eusteko deia egin du. “Jarrai dezagun bide arduratsu honetan. Eutsi eta segi elkar zaintzan”.

Babes neurriak errespetatzeko eskaera egin du PSE-EEk

Kezka handia izan arren, lasaigarria da PSE-EErentzat Usurbil eremu gorritik laranjara igaro izana, horrek “pandemia eta kutsatze maila beherantz doala” erakusten baitu. Hare, intzidentziak oso altua izaten segitzen duela ohartarazi du, datuak “oso kezkarriak dira”, sozialisten esanetan.

Animu mezua eta hobekien sendatzeko mezua helarazi die Patxi Suarez zinegotziak covid19-a dutenei, eta esker ona osasun nahiz gizarte zerbitzuetako langileei. Aipamen berezia egin nahi izan die baita, udal langileei eta adineko zaintza lanetan ari direnei. Suarezek gurekin elkarbizi den birusarengandik babesteko beharrezko neurri

guztiak hartzea galdegiten die usurbildarrei: segurtasun tartea errespetatu, musukoa egoki jantzita izan eta eskuak garbi mantentzea. Norberaren eta gainerako osasuna babesteko alertan jarraitzeko deia egin du.

Dekretu berria, aurreko neurriekin

Indarrean da azaroaren 21az

geroztik covid19-aren hedapena murrizteko Eusko Jaurlaritzaren dekretu berria. Ez dakar ordean aldaketarik. Aurretik zeuden neurriak segiko dute indarrean abenduaren 10era arte gutxienez. Azken egunetako aldaketa bakarra, taberneko eramateko kafea edota alkoholik gabeko edaria zerbitzatu ahalko dutela.

“Piztu dadila euskararen sua gure artean”

Aurten bizitzerik izan ez ditugun jaietako txupinazoa jaurtita abiatu zuten azaroaren 20an Usurbilen, Euskaraldiaren 2. edizioa. Euskaraldiaren hasiera suziria piztu zuena, azken asteotan, izen emate kanpaina bideratzen aritu diren Jon, Aitor eta Garbiñe hirukotea izan zen. Bizi dugun osasun krisialdia tarteko ezin denak bildu eta hiruren izenean ariketa kolektibo honetan Belarriprest gisa parte hartuko duen Jonek hartu zuen hitza.

Adierazpena

Tira, azken aldian, nahiko disgustu eta gorabehera ditugu baina gaurko iragarkizunak, albiste ona dakar behingoagatik! Euskaraldia hastera doa!

Gutako bakoitzak bere txapoxa jantzi, badakizue Be-



“Azken aldian, nahiko disgustu eta gorabehera ditugu baina gaurko iragarkizunak, albiste ona dakar behingoagatik! Euskaraldia hastera doa!”.

EUSKARALDIA USURBIL

“15 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko apustua egingo dugu”

larriprest edo Ahobizi, eta 15 egunez hizkuntza-ohiturak aldatzeko apustua egingo dugu.

Eh! Nork bere ahalmenetik, noski, tentuz... Baina seguru!

Horixe baita Euskaraldiaren filosofia: urrats txikia, aurre-rapauso handia! Etxe azpiko dendan, sukaldean, parkean, lanean, yogako klasean... amarekin, aitarekin, ilobarekin, bideodeiaren beste aldean

duzunarekin... eh eta baita jaungoikoarekin ere akaso! Ziur dagoeneko badakizuela non eragin dezakezen aldaketak!

Izan ere, Euskal Herria gara, euskara dugu hizkuntza, eta euskaraz bizitzeko nahia dugu. Eta askotan ez gara ohartzen, aldamenekoak ere nahi bera izan dezakeela, baina inertziek eta ohiturek eramaten gaituzte la kontrako norabidean. Gu ere aktibatzen goaz, hortaz!

Diplomatiko jartzen ari naiz... Barkatuko didazue, nire burua balkoian ikusita hazi egiten naiz.

Lehertu dadila Euskaraldia! Piztu dadila euskararen sua gure artean!

Aupa Usurbil, eta gora Euskaraldia! Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan!

Ia 900 norbanako, 34 entitate

Abenduaren 4ra arte, Ahobizi nahiz Belarriprestek, baita entitateek ere ariguneez bidez euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan ahotan hartzeko konpromisoa gauzatuko dute. Egunotan Euskaraldian murgilduko den herritar nahiz entitate kopuruaren adierazgarri, ekimena Usurbilen sustatzen ari den herri batzordeak plaza-taturiko bi zenbaki; ia 900 Ahobizi eta Belarriprestek eta 34 entitatek eman dute izena. Denetarik entitateok:

- Etumeta AEK.
- Aginaga Herri Eskola.
- Aitzaga taberna.
- Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba.
- Ane ileapaindegia.
- Artzabal.
- Bidelan Gipuzkoako Autobideak S.A.
- Biyok 24 ordu.
- CIFP Usurbil LHII.
- Elhuyar Fundazioa.

- Eroski Koop E.
- Eroski Koop. Elkartea.
- Fagor Automation.
- Fagor Ederlan.
- Gestion de Servicios Residenciales (GSR).
- Hurbilago merkataria eta ostalarien elkartea.
- Ikaslan Gipuzkoa.
- Intza ile-apaindegia.
- Kabiene.
- Kutxabank S.A.
- Laboral Kutxa.
- Laneki elkartea.
- NOAUA! Kultur Elkartea.
- Orbeldi Dantza Taldea.
- Pello Arraindegia.
- Rural Kutxa.
- Saizar Sagardoa.
- Santueneko Zaharren Egoitza Taberna.
- Tapuntu Kooperatiba Elkartea Txikia.
- Udarregi Ikastola, I.K.E.
- Urbil merkataritza-gunea.
- Usurbil KE.
- Usurbilgo Udala.
- Zumarte Musika Eskola.

Euskaraldia girotzeko ekitaldiak

Azaroak 28, larunbata:

“Esnatu naiz” kabareta

■ 19:00 “Esnatu naiz” kabareta Sutegiko auditorioan, Andoni Mutiloaren eskutik.

■ Zehaztasunak: “Esnatu naiz” antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen showa da. “Identitatea, giza-harremanak eta sexualitatea ditu hizpide, besteak beste, baina batez ere, gure nortasunarekin bat egin eta aske bizitzeko gonbita egiten dugu”.

■ Sarrera: doan azaroaren 26a baino lehen, usurbilkultura.eus atarian.

■ Aforoa: 78 pertsona.

Abenduak 1, asteartea: “Mikel Laboa gogoan”

■ Egun osoan bere musika entzungai. Bestalde, azaroaren 30etik abenduaren 6ra bitartean, Mikeli idazteko

Erregistro Liburua herritarren eskura egongo da Sutegi liburutegian.

Abenduak 3, osteguna:

Euskararen Eguna

■ 19:00 “Nahi dugu hitz eta jolas” bertso saioa Sutegin. Sustrai Colina eta Jone Uria bertsolariak euskararen erabilerari buruz jolasean jarriko ditu Imanol Artola “Felix” gai-jartzaileak, hizkuntzarekin eta hizkuntzatik.

■ Izen ematea: abenduaren 1a baino lehen usurbilkultura.eus atarian.

■ Aforoa: 78 pertsona.

Abenduak 4, ostirala:

Onintza Enbeitaren hitzaldia

■ 18:00 Onintza Enbeitaren “Non gelditu gara gu?” hitzaldia Sutegiko auditorioan.

■ Izen ematea: abenduaren 2a baino lehen usurbilkultura.eus atarian.

■ Aforoa: 78 pertsona.

Ziklo amaiera arrakastatsua udal liburutegian

Ikusmin bizia eragin zuen Sutegi udal liburutegiak azaroaren 17an kultur etxe-ko auditorioan antolatu zuen solasaldiak. Onin pertsonaia protagonista duen gaztetxoaren ipuin bilduma arrakastatsua- ren egile Ibon Martin Alvarez idazlea gonbidatu zuten.

Kultur etxe-ko auditorioan baimendua dagoen aforoa bete zuten zaletuek. Gaztetxo- e- zuzenduriko Onin sortze lan bilduma ezagunaren egileak ikusmin berezia piztu zuen bertaratu ziren gaztetxoengan. Irakurle eta zaletu finak ditu Usurbilen. Martin hitz egiten hasi zenerako, galderak egiteko prest ziren. Batek baino gehiagok Onin pertsonaia protagonista duten lanak eskue- tan, egilearen sinadura jaso- tze-ko gogoz. Ekitaldi honekin amaitutzat eman dute hainbat sortzaile (Joseba Larratxe, Ixa- bel Agirresarobe edo Harkaitz Cano) partaide izan dituen “Udazkena liburutegian” zi- kloa.



Ibon Martinen hitzaldiarekin amaitutzat eman dute ‘Udazkena liburutegian’ zikloa.

IBON MARTIN

‘Onin’ bildumaren egileak ikusmin berezia piztu zuen bertaratu ziren gaztetxoaren artean

Whatsapp zerbitzura batzeko deia

Sutegi udal liburutegiko dina- miken berri whatsapp bidez jaso nahi duenak kultur etxe-ko udal zerbitzukoekin hartuema-

netan jar dadila. Hemen duzue liburutegiarekin hartuema- netan jartzeko bideen berri: biblioteca@usurbil.eus 943 36 06 92 688 625 477 (whatsapp zerbitzua).

Sare sozialak:
Facebook: “Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia”
Twitter: @usurbib
Instagram: Sutegi05

Energiaren bulegorako udal teknikariaren hautaketa prozesua martxan

Usurbilgo Udalak abiarazi du Artzabalen duen egoitzan, abendutik aurrera kokatuko den energiaren bulegoan lan egiteko teknikaria hautatzeko prozesua. Herritarrei aholku- laritza zerbitzua eskainiko die, energia probrezian egin dai- tezkeenak lagundu, energia- ren aurrezpen eta eraginkor- tasunean hezi, baita Udalaren energia kudeaketa hobetu eta alor horretako zereginak ere bere gain hartu beharko ditu. Ezinbesteko baldintzok bete beharko ditu:

■ Goi mailako ingeniari titulua

edo gradua.

■ Euskara C1.

■ 30 urte baino gutxiago iza- tea.

■ Desenpleguan egon eta enplegu-eskatzaila izatea, alta emana izatea Lanbiden.

■ Gazteen Bermerako Siste- man inskribatuta egotea.

■ Baloratuko diren alderdiak: euskara C2, energia arloko masterrak, ekintzailea izatea, talde lanetarako gaitasuna, komunikazio gaitasuna, anto- lakuntzarako gaitasuna...

■ Lan eskaintzari buruzko in- formazioa eta izen emateko:

lanbide.eus

Liburuzain lanpostua

Liburuzain laguntzaile lanpos- tua hornitzeko urrats berri bat eman du Usurbilgo Udalak; behin-betiko onartu du onartu eta baztertuen zerrenda. Aza- roaren 19ko Gipuzkoako Aldiz- kari Ofizialean kaleratu zuen. Horrekin batera, hautagaiei zuzenduriko lehen hitzordua finkatu du Udalak; “lehenen- go froga 2021eko urtarrilaren 21ean Oiardo Kiroldegian izan- go da”.



“Koko, dragoi txikia oihanean” film berria Sutegin

Abenduaren 6an igandea, arratsaldeko 17:00etan es- kainiko dute Sutegin. Udalak Ziortzakoekin elkarlanean antolaturiko haurrentzako euskarazko zine zikloaren baitan emango dute. Sarre- rak egunean bertan 3 eu- rotan salgai jarriko dituzte. Animaziozko filmak lehen aldiz oporretara doazen su dragoi- eta gourmet dra- goien ibileren berri dakar.

Mikel Laboaren omenez

2008ko abenduaren lehen- ean zendu zen Mikel Laboa. Ordutik urtero, sortzaile han- dia omentzen du Usurbilgo herriak. 12 urte beteko diren honetan ere bai; bere musika entzungai jarriko du Udalak datorren asteartean egun osoz. Horrekin batera, oroi- men eta gorazarre mezuak idazteko erregistro liburua eskuragarri jartzekoa da Udala liburutegian azaroaren 30etik abenduaren 6ra.

Errigoraren otarren banaketa

“Nafar hegoaldeko uzta eus- karari puzka” kanpainaren baitan saskiak eskatuak di- tuzuenok adi; ostegun edo ostiral honetan, azaroaren 26an edo 27an, 9:00-14:00 artean jaso ahalko dituzue NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan. Ordainketak au- rrez bideratu ez dituzuenok, otarrak jasotzerakoan egin beharko dituzue.

San Tomas lehiaketan parte hartzeko **deialdia**

Noaua!k baserritar guztiak
gonbidatu nahi ditu

Herritarrek sagardo eta
babarrun lehiaketan parte hartu ahal izango dute.
Parte hartzeko azken eguna abenduak 11.



Abenduaren
sari banaketa 20an

Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produkturekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri
behar du eta 12 € ordainduko zaio.

Sagardo lehiaketa:

Sagardoa etxean egiten duen usurbildarrek parte hartu ahal
izango dute.

(Sagardotegiek ezin dute parte hartu lehiaketa honetan).

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko
ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko
zaio.

Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena
emateko datak:

ABENDUAREN 9tik 11ra

- **ORDUTEGIA:** 8:00-13:00 eta 16:30-18:30

Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak
izango dira:

- 1. saria: 150€ + txapela
- 2. saria: 90€ + kopa
- 3. saria: 50€

Informazioa: Noaua!ko egoitzan eta 943 36 03 21 telefonoan



noaua

NOAUA! Kulturaldia geldiaraziko duen birusik ez da jaio



Malen eta Maddi, joan den ostiralean Sutegin. Anarirekin batera eskaini zuten kontzerturako sarrerak berehala agortu ziren.

Musika kontzertuek garai hobeak ikusi badituzte ere, pixkanaka talde batzuk kontzertuak ematen hasi dira. Horretarako aukera izan zuten Malen eta Maddi herriarrek, eta Anari taldeak Sutegin aurreko ostiralean.

NOAUA!k antolatutako Kulturaldiaren baitan, musikak tarte garrantzitsua izan du. Edukieraren kontua dela eta,

AFOROA, MUGATUTA
Covid-19aren ondorioz ezarri den segurtasun protokoloa tarteko, aforoa erdira murriztu behar izan zen NOAUA!
Kulturaldian. Txartelak aldez aurretik agortu ziren emanaldi gehienetan

nahi baino jende gutxiagok izan zuen aukera zuzenean kontzertuak ikusteko, batzuek

ez baitzuten sarrerarik lortu. Covid-19aren ondorioz ezarri den segurtasun protokoloa tarteko, aforoa erdira murriztu behar izan zen NOAUA! Kulturaldiko ekitaldi denetan. Eta horrek eragin zuzena izan zuen ekitaldietan. Txartelak aldez aurretik agortu zirelako ia emanaldi gehienetan.

Musikazaleak, kontzertu egarrik Malen eta Maddi gazteek eman zioten hasiera kontzer-

tu arratsaldeari. Arratsaldeko zazpitan gitarra eta pianoak lagunduta hainbat bertsio jo zituzten bi emakumeek. Lehenengo hauen kontzertuaren ostean, Anari taldeak hartu zuen oholta. Azken hauek ere azkenaldian ez dute aukera gehiegi izan kontzertuak emateko eta jendeak gogoz hartu zituen. Garaiz amaitu ziren kontzertuak, 21:00ak baino lehen amaitzea derrigorra baita legearen arabera.

Peru Galbete musikaria eta zinegilea ezagutzeko aukera aparta

Peru Galbetek emanaldi bi-koitza eskaini zuen azaroaren 14an.

‘Nor zara zu?’ diskoa kale-ratu du aurten eta lehen aurkezpen kontzertua Sutegikoa izan zen. Bi musikari izan zituen alboan.

Musikaria izan ezik, zinegilea ere bada Peru Galbete. Kontzertuaren ondoren, ‘Ura sartu zen barrura’ izeneko laburmetraiaz gozatzeko aukera izan zuten ikusleek. Bi ekitaldien amaieran, solasaldi labur bat izan zuen Sutegira bertaratu zirenekin.



‘Nor zara zu?’ diskoa aurkezteko, Peru Galbetek bi musikari izan zituen bidelagun.



'Urpekakariak' haurrentzako bertso-antzerkiarekin abiatu zen Kulturaldia.



Orbeldi Dantza Taldeak eta Korrontzik emanaldi bikoitza eskaini zuten.



Oskar Alegria zuzendaria Iruñetik hurbildu zen Zumiriki filma aurkeztera.



Fadoak entzuten zituen gizona antzezlanerako sarrerek agortu egin ziren.

COVID19 BIRUSAREKIN GAIKOTUTAKO KASU POSITIBOREN BAT DUTEN ETXEBIZITZAK

Erabil itzazu 3 poltsa



Positibo eman duen pertsonaren erabilera bakarreko materialak, bere zaintzailearenak, eta pazientearen gainerako hondakinak:

SARTU POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (1go poltsa).
Pazientearen logelaren barruan egin.



SARTU 1GO POLTSA, ZAINITZAILEAREN ERABILERA BAKARREKO MATERIALAREKIN, (ESKULARRUAK, MASKARAK...) BESTE POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (2. poltsa).
Pazientearen logelaren barruan, ate ondoan.



SARTU 2. POLTSA ERREFUSAREN KUBOAN (3. poltsa), ETA ONDO ITXI.
DEITU ATEZ ATEKO BULEGORA (900 776 776):
GU JOANGO GARA HONDAKINAK JASOTZERA.



ARRETAZ GARBITU ESQUAK,
URA ETA XABOIA ERABILITA,
40-60 SEGUNDOZ.

PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik

GAINERAKO HERRITARREK (Eskularruak, maskarak, mukizapiak)

Kalean: errefusaren edukiontzietan
Etxean: errefusaren kuboan



GAINERAKOAN, JARRAITU OHI BEZALA SAILKA BIRZIKLATZEN

ASTELEHENA	ASTARITZA	ASTEAZKENA	OSTEGONA	OSTIRALA	LAGUNBATA	IGANDEA
Organikoa Koka, barazkiak	Beste materialak Plastikoa, metalak, papera eta kartoiak	Papera eta kartoiak Plastikoa, metalak, barazkiak	Organikoa Koka, barazkiak	Beste materialak Plastikoa, metalak, papera eta kartoiak	Organikoa Koka, barazkiak	Errefusoa Koka, barazkiak
Organikoa Koka, barazkiak	Beste materialak Plastikoa, metalak, papera eta kartoiak	Papera eta kartoiak Plastikoa, metalak, barazkiak	Organikoa Koka, barazkiak	Beste materialak Plastikoa, metalak, papera eta kartoiak	Organikoa Koka, barazkiak	Errefusoa Koka, barazkiak



Euskarazko eta kalitatezko 10.000 produktu baino gehiago eskura, Katalogoarekin

Kalean da Euskarazko Produktuen Katalogoa, bere 22garren edizioarekin; eta urtero bezala, euskarazko ehunka produktu gomendatuko dizkie, 0-12 urteko haurrei eta 12-16 urteko gazteei. Interneten, katalogoa.eus atarian, are zabalagoa da eskaintza: 10.000 produktu baino gehiago daude ikusgai, etengabe eguneratuta.

Dagoeneko kalean da Euskarazko Produktuen Katalogoa: 70.000 ale inguru banatuko dituzte, eskola, liburutegietan.

Eta ohi bezala, bere orrialdeetan topatuko dituzte haur eta gazteek, euskarazko ehunka produktu, aisialdirako. Guztiak kalitatezkoak, izan urtetik urtera interesgarri suertatzen direnak, edota urteko nobedadeak: liburuak, ipuinak, jostailu eta jokoak, musika, aldizkariak, komikiak, filmak, aplikazioak, gurasoentzako materiala...

Eskaintza hori, baina, askoz ere zabalagoa da Interneteko euskarrian, katalogoa.eus atarian. Bertan, euskarazko



Haurrei eta gazteei zuzendutako atal bana, buletinera harpidetzeko gunea eta nobedadeak dauzka katalogoa.eus web orrialdeak.

KATALOGOA

“Maiztasunez eguneratzen da Katalogoaren edizio digitala: katalogoa.eus. Argitaletxeek elikatzen dute, produktu berrieekin”

10.000 produktu baino gehiago aurkituko dituzte bisitariak, etengabe eguneratutako Katalogoan.

Bi atal ezberdin ditu: haurrena (0-12 urte)

eta gazteena (6-12 urte)

Bai papereko edizioak, eta baita

Internetekoak ere, bi atal ezberdin dituzte, bi adin tarteri eskainitakoak. Haurrentzako osatu dute horietako bat, 0-12 urte bitartekoentzat; eta gazteenentzako produktuak jasotzen ditu besteak, 12-16 urtekoentzat.

Webgunean, nahikoa da talde bakoitzari dagokion atalean sartzea, horiei bereziki zuzendutako milaka produktu ikusteko, oso modu errazean.

Paperean, berriz, bi alde ditu Katalogoak; eta baita bi portada ere, adin tarte bakoitzeko bat. Horrela, Katalogoa alde batetik

hartzen badugu, ikusiko ditugu 0-12 urteko haurrentzako produktuak, eta gurasoentzako materialak; eta buelta emanez gero, 12-16 urtekoek zuzendutako produktu bilduma izango dugu esku artean. Horrela, produktuen bilaketa nabarmen erraztu diete erabiltzaileei, eta nortasun propioa hartzen du adin tarte bakoitzak.

8.800 ale Buruntzaldean, papereko edizioak

Katalogoa osatzeko lanean, parte hartzen dute Euskal Herriko 120 bat udal eta mankomunitatetako Euskara Zerbitzuek, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan banatzen dute papereko edizioa, urtero. 70.000 ale horietatik, zati handi bat iristen da Buruntzaldeko etxeetara. Izan ere, guztira 8.800 ale banatzen dituzte gure eskualdean, ikas-etxeen bitartez bereziki.

Zehazki, Euskarazko Produktuen Katalogoaren 2.300 ale banatzen dira Lasarte-Orian, 2.000 Hernanin, 1.600 Andoainan, 1.100 Astigarragan, beste 1.100 Urnietan, eta 700 Usurbilen.

Euskarazko produktu berrienak, klik bakar batera

Produktu interesgarrien aukeraketa eskainiko du papereko edizioak, datozen asteotarako ezin aproposagoa, urteko garai honetan aukera paregabea izaten baita, euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoak erosi eta oparitzeko. Baina euskarazko produktuak kontsumitzeko urteko edozein egun denez ona, unean uneko nobedade guztiak ere jartzen ditu bisitarien eskura Katalogoak, urteko edozein garai dela ere, interneteko edizioan. Izan ere, maizta-

sunez eguneratzen da sareko Katalogoa, argitaletxeek eurek elikatzen baitute: urtean zehar kaleratzen dituzten produktuak, labetik atera berritan gehitzen dituzte Katalogoan; eta deskatalogatu direnak, berriz, kendu egiten dituzte. Hori horrela, etengabe ari da hazten katalogoa.eus.

Gainera, produktu gehiago bildu ez ezik, produktuei buruzko xehetasun gehiago ere jasotzen ditu Katalogoak, Interneteko edizioan.

Euskarazko Produktuen Katalogoa esku artean izan ez

duenak, gainera, interneten bertan deskargatu dezake, PDF formatuan, adituek egindako aukeraketa ikusteko.

Buletinera harpidetzeko aukera

Webgunean bertan, nobedadei eskainitako atala ere badauka Katalogoak, gehitu diren azkeneko produktuak aditzera ematen dituena. Baina horrez gain, nobedadeen berri emateko beste zerbitzu bat ere eskaintzen du Katalogoak: buletinera harpidetza. Doakoa da, eta katalogoa.eus webgunean bertan dago txoko

bat, harpidetza egiteko. Horretarako, nahikoa da izea eta helbide elektronikoa ematea; eta hortik aurrera, hilero jasoko dugu buletina gure posta elektronikoa, hilaletako nobedadeetako bartzuen berri emanez.

Webgunea eta buletina ez ezik, beste bide bat ere badauka Euskarazko Produktuen Katalogoak, nobedadeen berri eman eta produktuak gomendatzeko: Facebooken daukate orrialdea, Euskarazko Produktuen Katalogoa izena duena.

“Irakurzale diren haur eta gazteei, gustatzen zaie liburutegira etorri, apal artean ibili eta aukeratzea”

Irakurtzeko hainbesteko ohitura ez dutenek eskatzen dizkiete gomendioak liburuzainei; eta haientzat, oso tresna erabilgarria izaten da Euskarazko Produktuen Katalogoa.

Oso tresna erabilgarria da Euskarazko Produktuen Katalogoa, liburutegietan ere, eta aurtengoa ere, badaukate dagoeneko. Liburutegiko eskaintza eguneratzeko garaian, Katalogora jotzen dute liburuzainek; eta zer irakurri ez dakiten haur eta gazteei, Katalogoa ematen diete, “gomendio edo pista modura”. Hala azaldu dute, Hernaniko Udal Liburutegiko arduradunek.

Liburu bildumek eta komikiek, arrakasta
Arrakasta gehien duten li-



Gaztetxoentzako liburu ugari topatuko dituzue Sutegiko udal liburutegian.

KATALOGOA

“Dagoeneko liburutegietan da Euskarazko Produktuen Katalogoa”

buruak ere eman dituzte aditzera, liburuzainek. “Bildumak

dira irakurrienak: Futboleroak, Txano eta Oscar, Geronimo Stilton, YouTuberren liburuak (Martina, Clodet...), Rita, Junie Jones, Eta zer?, Onin... Gazteen artean, berriz, Blue Jeans, You, Los gatos guerreros...”. Oso irakurzale ez direnei, komikiak gomendatzen dizkiete beraiek: “Superpatata,

adibidez, arrakasta handia ari da izaten”. Asko mailegatzten diren bildumak ere erakusten dizkiete, “batzuentzat ez direlako hain ezagunak”. Eta baita Galtzagorrik gomendatzen dituenak ere: “askotan, bildumetatik kanpokoak izaten dira horiek, ez oso ezagunak, eta merezi du guk ezagutzera emateak”.

Liburu mota bat edo beste, irakurzaleek gustuko dute liburutegira joan, apal artean ibili, eta beraien aukeraketa egitea. “Hori ez da askorik aldatu”. Eta ezta euskarria ere: “ez dugu uste, asko direnik liburu elektronikoa aukeratzen duten gazteak. Irakasleek ere gauza bera esan izan digute, haiekin komentatu dugunean. Irakurtzekotan, nahiago dute paperean irakurri”, nabarmendu dute.



SUDOKUA

Plater gustagarriak eta sanoak prestatzeko moduen artean egostea


E				G	
S		A		I	
		E	G		
	O	S	E		I
	E			O	S
	S	I		E	

da egokienetako bat. Bete itzazu lauki zuriak, EGO-SIA hitza osatzen duten hizkiekin (E, G, O, S, I eta A). Gogoratu elementu bakoitza behin ager daitkeela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.




ASKARIA

Hona hemen Pelloziriren bokatarik gustukoena: tomatea, txanpinoia, arrautza, urdaiazpikoa, gaineko ogi zatia eta azpiko ogi zatia. Lagunei ere eskaini nahiko lieke, baina zenbat ogitarteko osa ditzake?



Bizkotxo zopa?!

Bai harrigarria! Neska-mutilok txokolatezko bizkotxo egin nahi lukete, eta horretarako behar duten guztia, tresnak eta osagaiak, zopa honetan daude, aizu. Ea aurkitzen dituzun.





Erabaki eta Margotu



Zer da hau, pizza ala tarta zati bat? Pizza baldin bada, marraztu iezazkiozu zure gogoko osagaiak. Tarta zati bat baldin bada, apaindu munduko gustagarriena izan dadin.

Zu bai Hamalau!

Ez dakigu zer prestatu duen Maripurtzilek, eta zer dakarren estalki horren azpian. Nolanahi dela ere, bi irudien artean bada aldea. Zehazki esanda, hamalau diferentzia daude, ikusten al dituzu?



Itzala


Zein da Pelloziriren (ondoko orrian) itzal zuzena?



Osa itzazu lauki zuriak, arrautza frijituaren gaineko domino zati honek zentzua izan dezan.



DOMINOAN





Ofizioen Gida



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76

943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

628 45 78 39
reformasmonroy@hotmail.es

TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROTZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROTZTEGIA

943 362 664

Barren Elxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoenarotzgi.net jribargoen@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KOHINTATZAKO GREHIOAK · KOHUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • 943 36 80 04



KNORGT Txiki S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33 - 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

Artzabal: “Eguneko menua dugu eta asteburueta karta”

NOAUA! Irekita jarraitzen duzue etxera eramateko zerbitzuarekin, baina zer ari zarete eskaintzen zehazki?

Artzabal: Bazkariak egunero eskaintzen ditugu, bai. Afa-riak ostiral eta larunbatetan. Astelehenetik ostiralera eguneko menua daukagu, eta asteburueta karta murriztu bat. Nahiz eta orokorrean baino murriztuagoa izan, karta nahiko konpletoa da: bokadiloak, hanburgesak, pizzak, oilasko osoak... nahiko aukera dago. Asteburueta beti eskaintza berezia izaten dugu, adibidez, batean paellak egiten ditugu, bestean entsalada bereziak.

Bila etorri behar da edo etxerako banaketa egiten duzue?

Enpresentzat eguneko menua bai eramaten dugu aste barruan, taldeak direla uler-tzen dugulako. Asteburueta



“Aipatzekoa da gaueko zerbitzua 21:00ak arte baino ez dugula eskaintzen”.

ARTZABAL

“Herriko jendea badabil, eta enpresetan ere bai, nahiz eta nahi baino gutxiago izan”

ere kasu berezietan eraman dezakegu etxeetara, norbait

konfinatuta badago eta ezin badu zuzenean bila pasa, baina printzipioz bestela ez. Batzuek deitu ere egiten dute zerbait berezia nahi dutelako, arroza bogabanteekin edo, eta aurrez eskatuta horrelako gauzak ere egiten ditugu.

Eramateko kafeak ere baditu-

zue aukeran.

Bai, irekita gauden orduetan kafea eskaintzen dugu. Egur-ditan 12:00etatik 12:30era, eta ostiral eta larunbatetan gauzez 18:00etatik 21:00etara ere bai. Ordu bitarte horietan jendeak kafea nahi badu jakina prestatzen diegula, lanerako gogoz gaude eta. Taberna berez itxita daukagu, eta beraz, sukaldearekin pentsatzen dugu. Hala ere, kafeak eta freskagarriak ere prest dauzkagu nahi dituztenentzat eramateko moduan.

Nola ari zarete moldatzen egoera honetan?

Autonomoen diru-laguntzei muzin egin behar izan diegu irekita mantentzeko, eta langileak ERTEan daude. 12 langile ibiltzen gara hemen, eta lau ordu kopuru jakin batzuetan lanean ari dira gutxieneko zerbitzu horiek eskaintzeko.

Antxeta: “Jende askok ez daki irekita jarraitzen dugula”

NOAUA! Etxerako zerbitzua ematen duzue. Egunero izaten al da?

Antxeta Jatetxea: Egunero, bai. Bazkariak ematen ditugu batez ere, bai menua eta pizzak, plater konbinatuak, hanburgesak, sandwichak... Pixka bat denetik.

Kafeak ere eskaintzen hasi zarete, ezta?

Bai, hasiera batean ez zen posible, baina orain baimena eman digutenez kafeak ere eskaintzeko, eramateko jartzen ditugu.

Banaketa zerbitzua eskaintzen duzue edo ezinbestekoa al da jatetxera hurbiltzea janaria hartzeko?

Normalean jasotzera etortzen dira gehienak, baina baditugu langileak eta enpresak gu arduratzen garenak bertara



“Baimena eman digutenez kafeak ere eskaintzeko, eramateko jartzen ditugu”.

ANTXETA

“Bazkariak ematen ditugu, menua eta pizzak, plater konbinatuak, hanburgesak, sandwichak... Pixka bat denetik”

janaria eramatera. Norbaitek nahiko balu aukera hori ere

balegoke. Bi pertsona gabil-tza zerbitzari lanetan, eta beraz, norabait janaria eramatea tokatzen bada bietako batek lan hori egiten du, eta bestea zuzeneko zerbitzuaz arduratzen da. Zazpi langile geunden egoera hau guztia hasi baino lehen, eta orain hiru gabiltzan lanean. Egoera

berriz ere normalizatu arte gu hirurok jarraituko dugu, eta gerora zazpiok itzuliko gara. Momentuz egoera hau luze-rako doala ematen du, eta pazientziak hartu beharko dugu. Irekita mantentzeko moduan lan egiten dugu, eta horretan gabil-tza.

Nolakoa izan da bezeroen erantzuna?

Publizitate gutxi egin dugu, eta jende askok ez daki irekita jarraitzen dugula. Itxialdiaren aurretik, pixka bat zer zetorren ikusita bezero askorekin hitz egin genuen gure asmoak azalduta. Batez ere, langileekin egin genuen hori, eta bestelako bezeroen kasuan, batzuk eskatzen digute janaria.

Egoera berrira ohitzen ari gara, eta apurka-apurka aurre-ra goaz dagoenarekin.

Gazte Eguneko antolatzaileak: “Inoiz baino beharrezkoagoa da gu antolatzea”

Eduki aldetik inoizko Gazte Egun biziena antolatu dute herri eragile zenbaitek astebururako. Pandemiak are gehiago larriagotu ditu eta, gazteriak lehendik zituen hainbat arazo. Antolatzaileekin bildu da NOAUA!.

NOAUA! Pandemiaren ondorioei helduta hasiko duzue Gazte Eguna. Zer eragin izaten ari da?

Aurretik eta 2008ko krisian bezala gazteria izan da sektore prekarizatuena. Gazte askok orain ez dute lanik, ez inongo diru sarrerarik. Noraeza da nagusi. Gure aldarri nagusietako bat izango da gure bizi proiektuak non dauden. Gazteok lehen gure tokia aurkitzeko nahiko lan genuen, orain are eta gehiago. Adin tarte honetan helduenek ERTE garaia bizi dute, beste batzuk lanpostua galdu dute. Nerabezaroan daudenentzat ere oso oso gogorra izaten ari da une hau sozializatzeko, haur izatetik heldu izaterako fase hori bizitzeko.



“Gazteok lehen gure tokia aurkitzeko nahiko lan genuen, orain are eta gehiago”, azaldu digute Gazte Eguneko antolatzaileak.

GAZTE EGUNAREN ANTOLATZAILEAK

“Nerabezaroan daudenentzat ere oso gogorra izaten ari da une hau sozializatzeko”

Fase hori guztiz suntsitzen ari zaie. Ondorio anitzak eta piloak ditugu egia esan. Ondorio sozialak daude baina baita osasunari lotutakoak, emozionalak eta psikologikoak. Ho-

riek bai nabaritu ditugu gazteengan. Inkesta honen harira txosten bat argitaratu genuen. Orain emaitzak, adinaren, generoaren eta okupazioaren arabera aztertu ditugu. Gazte Egun honetan ondorioak modu zehatzago batean islatu nahi ditugu. Aipagarria baita hezkuntzak gure gizartean duen egitekoa eta nola guztiz ahaztua utzi den pandemian.

Galdetegiko emaitzek zer diote?

Inkestan ildo desberdinak lantzen genituen; kultur arloan adibidez, sortzaileen garrantzia zenbatekoa den, gure nortasunak eraikitzeko zer gaitasun duen. Etxebizitzaren arloan ikusi dugu zer gazte gutxi erantzuten zuten atal hori, oso gutxi baitaude emantzipatuta. Erantzun zuten gutxi horiek, laguntza oso gutxi jaso dituztela zioten. Enpleguari dagokionez, helduagoek ERTE-engatik une zailak bizi dituztela, baina batez ere lan prekarioetatik hila batean zertxobait irabaztetik diru-sarrerarik gabe geratzera pasa garela. Kolpe latza izan da. Aztertu dugu baita gazteek nola pertzibitu dituzten zaintza lanak. Asko hitz egin da pandemian zehar zaintza lanetaz, zer paper duten. Eta askotan gure gizartean ez ditugu behar bezala baloratu. Ez dugu ulertzen zer funtsezko zutabeak diren gure gizartean, normalean zaintza lanak zeinek betetzen dituen, zer prekarizatu ta dauden...

“Guk kudeatuko ditugun espazio propioak behar ditugu”

NOAUA! Arazo guztiok hila-beteotan ikustarazteaz gain, zerbait egiten ari al gara gizarte moduan?

Herri mugimenduak bai ari dira antolatzen, alternatibak proposatzen eta exijentzia asko egiten. Eta horren adibide gara gazte mugimendua eta nola ari garen Gazte Eguna etengabe moldatzen. Baina badira baita oraintxe bertan greban diren sektore desberdinak, hezkuntzan egin diren eskaerak, mugimendu feministak eginikoak. Konfinamendu garaian ere zaintza sareak sortu ziren, herriko merkatarien aldeko apustua egin zen... Positi-

boak diren hamaika ekimen egin dira eta orain gazte mugimendu antolatuari sortu den haserre hori guztia ondo bideratzea dagokio, alternatibak eraikitzeko, haserre huts horretan ez geratzeko. Inoiz baino argiago geratu da, gauza asko erakundeetatik mugitu daitezkeela, parte hartu behar dugula baina kalean eta gu elkar zaintzen egiten dugula benetan gizartea eta konpondu ditzakegula arazoak.

Beharrezkotzat jotzen duzue isolamendua hautsi eta biltzea, ezta?

Gazte Eguneko tailerretako bat gazte espazioen ingurukoa

izango da. Gazteok geure proiektuak gauzatzeko guk kudeatuko ditugun espazio propioak behar ditugu. Guztiz beharrezkoa da sozializatzea eta behar hori oso nabaria izan da pandemian. Gazteok arazo gehiago ditugu horretarako. Berezik gazteon aisia asko kriminalizatu da, baina aisialdi horren kontra egin dako kanpainak gero eragin du ere gazteak kriminalizatzea antolatzeke garaian.

Orain inoiz baino beharrezkoagoa da gu antolatzea. Ezin dugu onartu inolako erasorik horren kontra.

Azken aldian sarritan lotu da

gazteria jarrera arduragabeekin.

Albistegietan lehenengo berria 200 gazteek egindako botiltzar bat da. Baina gazteen inguruan orain azaleratzen ari diren arazoetaz ez da hitz egiten; hezkuntza arloan bizi dugun estresaz, bizi proiektuei dagokienez zer salduta gauden... Puntu batzuetan gertatzen diren botiltzarretara mugatzen ari dira. Horrekin beldur ikaragarria sartzea lortzen dute; mezua izatea badaezpada gera zaitez etxean eta ez ezer egin. Gazteak kriminalizatzea eta gazte mugimendua geldiaraztea lortzen dute.

“Egun bizi dugun egoera salatzea da gure asmoa”

NOAUA! Botiltzarraren fenomeno zaharraz ari garenean, aisialdi eredu bati buruz ere ari gara gainera ezta?

Aztertu beharko genuke gure gizarteak orokorrean ze aisialdi eredu duen eta horren baitan gazteei zer alternatiba gutxi ematen zaien. Horren inguruan ere hausnartuko dugu. Ez ditugu espazio propio batzuk. Sostengarria ez den bizi eredua saldu eta nolabait horretara kondentatu gaituzte.

Gazte Eguna borobiltzeko bizi proiektuen inguruko elkarre-raratzea deitu duzue. Hainbat eskaera plazaratu nahiko dituzue.

Aldarrikapen txiki hauei guztiei txapel bat emateko modu bat izango da. Gure asmoa egun bizi dugun egoera salatzea da; kontrol soziala, emantzipatzeko arazoak, enplegu eta hezkuntzako arazoak... Eta aurrera begira gazteok kontziente izatea, borrokatu egin behar dugula, bestela salduta geratuko garela. Aurretik izan zen krisiaren antzera, garai gogorak datoz eta ikuskera aldaketa hori eragin nahi dugu herriko gazteengan. Azaleratu den egiturazko arazo bat bada. Gurea salaketa prozesu bat baina alternatibak eraikitzea ere izango da. Herriko talde edo eragileak indarrak batze-



Gazteen %70ari Sortuz Bakardadea Isolatuz proiektuko ekitaldiak lagungarriak egin zitzaizkion.

GAZTE EGUNAREN ANTOLATZAILEAK

“Orain inoiz baino gehiago ulertu dugu kolektibo bat garela eta elkar eragin izugarria dugula”

ko unea da, denok bide berean aurrera egiteko. Elkar babesten badugu orduan lortuko dugu aldaketa bat. Orain inoiz baino gehiago ulertu dugu kolektibo bat garela eta elkar eragin izugarria dugula eta elkar eragin hori zerbait positiboan bideratu dezakegula.

Gazte egun honi begirako mezua, elkarlanerako deia beraz.

Idea da hausnarketako espazioa ematea eta ikuspegi aldaketa hori ematea; gazteok bat egin eta indarrak batu be-

har ditugula, mezu hori helaraztea. Inoiz baino garrantzitsuagoa dela elkar antolatzea, hausnartzea eta zerbait berria eraikitzea. “Orain eta ozen” aldarriean egingo da Gazte Eguna.

Bozgorailu lana egitea ezta?

Bai. Eta horrekin adieraztea ere orain hasi behar dugula gure bizi proiektu horiek guztiak borrokan jartzen eta ez pandemia pasa ostean. Orain da hausnartu, aldarrikatu, alternatibak eraiki eta bozgorailu lan hori egiteko unea. Usurbilgo gazte mugimenduak aspalditik aldarrikatu izan du gazteok subjektu propioak garela. Orain subjektu horri ahots bat eman, kalera eraman eta denoi kendu nahi diguten espazio publiko hori geureganatu behar dugu.

teongan”.

Azaroak 28, larunbata

■ 11:00 Askatasuna plazan: “Gazte espazioak eta autogestioa”.

■ 17:30 Mobilizazioa: “Gazteon bizi proiektuekin zer?”.

Antolatzailea: Aztarrika Gazte Asanblada.

Covid-19aren ondorioak Usurbilgo

gazteengan

Zaintza eta harremanak:

■ %50ak baino gehiagok etxeko zaintza lanen banaketan aldaketa bat nabaritu du.

■ %80ak uste du etxean seguru ez bazaude ez daudela horri aurre egiteko baliabideak.

Kultura eta sortzaileak

■ Gazteen %70ari Sortuz Bakardadea Isolatuz proiektuko ekitaldiak lagungarriak egin zitzaizkion.

■ Gazte sortzaileak ezagutaraztera emateko gune baten aldarria aho bakarrekoa da.

Hezkuntza

■ 4tik ia hiruk erantzun dute ikasleen egoera ez dela kontuan hartu.

■ %85ak “Ikasle Zaintza Sareek” jarraipena izatea merezi dutela uste du.

Enplegua

■ Gazte langileriaren erdiak soldatan murrizketa nabariak pairatu ditu.

■ 5 gazte langileetatik batek diru sarrera osoa galdu du.

■ Lan egoeraren prekari-zazioa handitzeaz gain lan mundura sarrera mugatu da.

Etxebizitza

■ 10 gazteetatik batek bakarrik jaso du laguntza egoerari aurre egiteko.

■ Gazteriaren herenak soldataren erdia etxebizitzara bideratzen du.

Elkarlanean: Oriarteko Ikasle Asanblada, Kafe-Tertuliako nesken* taldea, Aztarrika Gazte Asanblada, Ernai Usurbil.

“Denon ardura da”

NOAUA! Esan beharrik ez; segurtasun neurriak hartuta antolatu duzue Gazte Eguna.

Horregatik gune irekiak bilatu ditugu. Gazteei konpromisoz jokatzeko eskatzen diegu eta eskatzen diren neurri horiek betetzeko, denon ardura da. Baina horrek ez dezala mobilizatzea eragotzi. Neurri horiek errespetatzeko gaitasuna dugu

eta aldi berean mugitzeko. Gure herrian bereziki erakutsi da, konpromisoz egiten badugu edozer gauza aurrera ater dezakegula.

“Orain eta ozen”

Azaroak 27, ostirala

■ 19:00 Askatasuna plazan: “Usurbildarron gazte ahotsa: pandemiaren ondorioak gaz-

Basoen etorkizuna zalantzan da

Basoen etorkizuna izan zuten hizpide azaroaren 18an Potxoenean. Alkartasuna Kooperatibak antolatuta, etorkizuneko Andatza sortzeko zer-nolako bideak jorra daitezkeen aztertu zuten hurbildutako herritarrek Iñaki Etxebeste eta Markel Arriolabengoa, Errez Kooperatibako hizlariak lagunduta. Baso ingeniaria bata eta biologoa bestea. Gure inguruetako basoen etorkizunak kezkatuta murgildu ziren biak Kooperatiba sortzeko bidean.

Eredu berriak izan zituzten hizpide, basogintza egiteko munduko hainbat adibide hartuta, aukera ecofriendly-enak eta bai planetarentzat, eta bai gizakiontzat onenak izan daitezkeenak proposatuta. Basogintza eredu klasikoaren ondotik, gure hainbat baso pinudi bilakatu ziren duela zenbait hamarkada, eta orain zuhaitz hauetako asko gaitzak jo dituela ikusita irtenbidea eman beharra dago egoerari, eta etorkizuneko plan bat marraztea ezinbestekoa da horretarako. Andatza bera ere neurri handi batean pinudia da, bai behintzat tontor ingurua.

Egokitzapen basogintza da arazo horri erantzun bat emateko modu egokiena, hizlarien aburuz. Unean uneko beharretara egokitutako basoa, eta lurrak dituen beharren arteko oreka mantentzen duena. Bertako espezieekin sortutako basoak babesten ditu eredu honek, baso mistoak sortuta,



Etorkizuneko Andatza sortzeko zer-nolako bideak jorra daitezkeen aztertu zuten hurbildutako herritarrek Iñaki Etxebeste eta Markel Arriolabengoa Errez Kooperatibako hizlariak lagunduta.

BASOEN ETORKIZUNA

"Biodibertsitatearen giltza nagusietako bat da basoa, eta zuhaitz guztiak batera landatu eta mozteak desoreka larriak sor ditzake"

adin ezberdinetako zuhaitzak bilduko dituen basoa. Hala, zuhaitzak ere apurka moztzen dira, ez denak batera. Ekosistemaren oreka mantentzen da egoera horrekin, eta ez da burusoil geratzen basoa, horrek ekar litezkeen arazo guztiak uxatuta. Biodibertsitatearen giltza nagusietako bat da basoa, eta zuhaitz guztiak batera landatu eta mozteak desoreka larriak sor ditzake inguru horretan.

Pinuaren egurra

Gisa horretako basoak errentagarriagoak ere badirela ziurtatzen dute ikerketa zientifikoek. Egungo pinuaren egurra ez dago oso estimatua, eta zen-

tzu horretan, errentagarria ere ez da. Denak batera landatu eta moztu behar izaten dira, eta horrek gastu handia dakar. Egokitzapen basogintzaren ikuspegitik, inausketa lanak apurka egiten dira, kolpetik espezie guztiak moztu gabe, eta basoari bere eboluzio naturala egiteko aukera emanda. Modu horretan, askoz ere errentagarriagoa da basoa, ez direlako zuhaitzak denak batera moztu behar, ez eta batera landatu behar ere.

Egungo ereduari jarraiki, eukaliptoaren etorkizuna planteatu izan da zenbaitetan. Pinuak bezala, kanpotik ekarritako espeziea da eukaliptoa, eta ekosisteman aldaketa handiak sor ditzake. Bertako animalia eta landaredian aldaketa handia sortuko luke eredu horrek, eta inbasio egoera bat sortu ere bai. Horren aurrean, bi hizlarien jarraiera tinkoa da: basoak berak erabaki behar du nolako izan nahi duen, eta horretarako egokitzapen basogintza da eredu lagungarria.

Buruntzaldean operario gisa aritzeko lan-eskaintza publikoa

Langabetuak lan merkatuan txertatzeko programa abiatu dute Beterri-Buruntzako udalek, bereziki, ohiko merkatuan txertatzeko arazoak dituzten taldeei zuzenduta.

Usurbilen, bost hilabeterako lau kontratazio

Guztira, 18 lagun kontratatuko dituzte: Usurbilen bost hilabeterako lau postu izango dira, lanaldi osokoak.

Udal brigadan aritzeko

Zeregin anitzetarako operario gisa udal brigadan lan egiteko enplegu programa da, ohiko lan-merkatuan txertatzeko arazoak dituzten kolektiboak zuzendua, batik bat, lehentasunez: emakumeak (%40), DSBE Diru Sarrera Bermatzeko Errenta (RGI) kobratzen dutenei (%30) eta 55 urte baino zaharragoak (%15). Gainerakoan, kolektibo hauetakoak izan behar dute: 45 urtetik gorakoak, iraupen luzeko langabetuak eta Covid-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratu ondoren lana galdu dutenak.

Izen-ematea, Lanbiden

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko Lanbiden argitaratu den lan eskaintzan eman behar da izena. Informazio gehiagorako, enplegu@usurbil.eus helbidera idatzi edo udaletxera deitu dezakete interesa dutenak.


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


ERAMATEKO!!!
-EGUNEKO MENUA-
-KARTA
ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39


Otar-Goxo
El ikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Preso eta iheslarien auzia konpontzearen aldeko martxa



“Izan Bidea” dinamika babesteko martxa egin zuten iragan igandean herrian barrena.

Sarek deituta, preso eta iheslarien auzia konpondu eta salbuespenezko espetxe politika etetea eskatzearen alde udaz geroztik abian duten “Izan Bidea” dinamika babesteko martxa egin zuten iragan igandean herrian barrena; Kaxkoa, Kalezar, Zubietea eta Santuenea zeharkatu zituen, “bidea gara, bidean gaude” aldarripean. Egungo segurtasun neurriekin; musukoekin eta bi ilaretan banatuta.

Usurbilen bezala ekimen anitz egin dira asteburuan zehar Euskal Herrian, “preso eta iheslarien etxeratze prozesua

SARE

“Aurten ez da manifestazio nazionalik deituko. Urtarrilaren 9an herrietan mobilizatzeko deia egin du Sarek”

martxan jarri eta elkarbizitzaren eta bakearen aldeko urratsak emateko”, Sareren esanetan.

Ohartarazi dutenez, espetxeetako egoerak okerrera egin du covid19aren eraginez. Urgentziaz oinarritzko urratsok ematea eskatu zuten: larriki gaixo diren presoek kaleratzea; urrunketa politikaren amaiera; gradu progresioa presoek

etxeratze prozesua abiatzeko; zigorren batuketak; bakarturiko emakume presoek bateratzea. “Une historiko batean aurkitzen gara”, ohartarazi du Sarek. Salbuespen legedia etetea inoizko gehiengo anitz eta zabala- ren babesa dago, eta frantziar zein espainiar estatuek “espetxe politika aldatzeko borondatea agertu dute” lehen aldiz. “Aukera probestu beharrean gaude”, diote Saretik. Urratsez urrats bultzada emate horretan direla adierazi dute.

Urtarrileko mobilizazioa herrietan egingo da

Bizi dugun osasun krisialdia tarteko, Sarek urte hasieran

Bilbon antolatu izan duen manifestazio jendetsua ez da izango bi hilabete barru. Horren ordez, urtarrilaren 9an herrietan mobilizatzeko deia egin du arratsaldeko 17:30etan.

Azken ostiraleko

elkarretaratzea, oraingoan bai Covid19-a tarteko, eremu gorrian sartu zen Usurbil urria amaieran. Eremu horretan azken ostiraleko mobilizazioak eten zituen Etxerat-ek. Eremu laranjan gara orain. Azken orduko aldaketarik ez bada, azaroaren 27an Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta elkarretaratzea egingo da 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Eskolako Agenda 2030 martxan da

Agenda 21 programa Eskolako Agenda 2030ean bilakatu da ikasturte honetan. Egitasmo berri hau Nazio Batuen Erakundeak adostutako Garapen Iraunkorreko 17 helburuetan oinarritzen da.

Helburu hauek 2015eko irailaren 25ean onartu zituzten Nazio Batuen Erakundeak, mundu mailan pobrezia desagerrarazi, planeta babestu eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko.

Lehorreko ekosistema

“Hemendik aurrera, eskoletan egingo den lanketa helburu hauetan oinarrituko da”, Artelatzen aditzera eman dutenez. “Aurtengoan, hamabosgarren helburua izango dugu abiapuntu: Lehorreko ekosistemetako bizia”. Lehorreko bizitza babestuz, lehengoratzuz



“Aurtengoan, hamabosgarren helburua izango dugu abiapuntu: Lehorreko ekosistemetako bizia”, Artelatzeako jakinarazi dutenez.

ARTELATZ

“Ikasturtean zehar, ikaslegoarekin batera hausnartzeko aukera paregabea dugu”

eta modu jasangarrian erabili dadila sustatuz. Hala nola,

basoak modu jasangarrian kudeatuz, basamortutzearen aurka borrokatuz, lurren degradazioa geldituz eta lehengoratzuz, eta biodibertsitatearen galera geldiaraziz.

Basoa ardatz harturik

Programa hau Usurbilgo Udalak bultzatzen du eta Artelatzen

Ingurumen Zerbitzuak enpresak garatzen du Udaregi ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasle eta irakasleekin batera.

“Ikasturtean zehar, ikaslegoarekin batera, hausnartzeko aukera paregabea dugu”, Artelatzen aditzera eman dutenez. “Dagoeneko martxan gaude, ikastetxeetako partaide guztiak, ikasle, irakasle zein guraso, aldaketaz informatuz eta motibazio fasean sartuta”. Datozen asteetan ikastetxearen eta herriaren diagnostikoa egiten hasiko dira. “Zer da baso bat? Zerk osatzen dute basoa? Landaketa eta basoa, gauza bera al dira? Nolakoa da gure ikastetxearen ingurua? Eta herria? Zenbat berdegune eta baso daude herri eremuan? Zein kontserbazio mailetan? Eta bere kudeaketa?... Galdera ugari ikastetxeko eta herriko argazkia egiteko”.

Xiberoko ikastolen aldeko otarrak

Nafartarrak Taldekoen eskutik martxan da Xiberoko ikastolak laguntzeko kanpaina. Urte amaieran jaso ahalko dituzuen toki-ko produktu goxoez hornituriko hiru otar ezberdin eskatzeko aukera duzue abenduaren 1era arte.

Nola eskuratu?

ikaskoli.eus web orrian egin daiteke eskaera edota NOAA! Kultur Elkartearen egoitzan (edo telefonoz deituta 943 360 321).

Plazan Bazan, 16/17 orrialdeetako soluzioak

SUDOKUA

Plater gustagarriak eta sarorik prestatzeko moduen artean egostea da egokienetako bat. Bete itzazu lauki zuriak, EGOSTEA hitza osatzen duten hizkiekin (E, G, O, S, I eta A).

E	I	O	S	G	A
S	G	A	O	I	E
I	A	E	G	S	O
G	O	S	E	A	I
A	E	G	I	O	S
O	S	I	A	E	G

Gogoratu elementu bakoitza behin ager daitzekela zutabe, lerro eta areak bakoitzeko.

ASKARIA

Hona hemen Pelozirinen bokatarik gustukoena: tomatea, txanginila, arrautza, urdiazpikoa, gainea, agi zatia eta aspiko agi zatia. Lagunei ere eskaini nahiko luke, baina zerbait ogiarteko odo ditzake?

Bizkotxo zopa?

Bai horrigarriak! Neska-mutik txakolatzeko bizkotxo egin nahi luke, eta horretarako behar duten guztia, tresnak eta osagaiak, zopa honetan daude, aizu. Ez aurkitzen ditzuz.

Erabaki eta Margotu

Zer da hau, pizza ala tarta zati bat? Pizta baldin bada, margotu lezazkizu zure gogoko osagaiak. Tarta zati bat baldin bada, epandu munduko gustagarriena izan dadin.

Zu bai Hamalau!

Ez dakizu zer prestatu duen Margotzik, eta zer darenen estaki horren azpian. Nolanahi dela ere, bi irudien artean bada aldea. Zehazki esanda, hamalau diferentzia daude, ikusten al ditzuz?

Itzala

Zein da Pelozirinen (ondoko orrian) itzal zuzena?

Oso itzazu lauki zuririk, arrautza frijituaren gainea domino zati honek zentzua izan dezan.

DOMINOAN

ETXEBIZITZA**Salgai**

Kontratu finkoa daukat eta Usurbilen edo Lasarten kontratuarekin eta erroldarekin alokairuan etxe bat edo logela bat hartuko nuke. Fernandogatik galdetu: 675886442.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Garbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Nissan Note 1600 gasolina kotxea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dabilen pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-

gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsaldean umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo heldue-

na. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuok deitu: 631 489 128.

Asteleheneetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizonetako eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko es-

kaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelese ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuan haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722483994.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Kutxa bat eta 6 zentimetroko lodieradun egurrezko bi mahai salgai. 618 009 069

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nuri. Domatua. Burukoa, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago, telefono hauetan: Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehen ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrak emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Ataluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Zorionak Peru!!

Azaroaren 27an zure urtebetetze eguna da. Ondo pasa dezazula eguna. Eñaut eta familiaren partez muxu handi bana. Segi horrela!

**Zorionak Malen!!**

Muxu potolo bat familia guztiaren partez! Ondo ondo ospatu zure urtebetetze eguna!

**Heriotzak**

Pakita Orbegozo Lizarazu
Azaroaren 11n hil zen Aginagan, 97 urterekin

**Heriotzak**

Luis Mari Mercero Macazaga
Azaroaren 20an hil zen Kalezarren, 71 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 26 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 30 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 01 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 02 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 03 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 04 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 05 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 06 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Agenda azaroa

26 osteguna

■ **Maria Jesus Ettxeberriaren margolanen erakusketa Sutegin.** Azaroaren 26ra arte ikusgai. Orduategia: 16:30-18:30.

27 ostirala

■ **Gazte Eguna, solasaldia.** "Usurbildarren gazte ahotsa: pandemiaren ondorioak gazteengan". 19:00 Askatasuna plazan.

■ **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.** Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, 20:00 Mikel Laboa plazan.

28 larunbata

■ **Gazte Eguna, solasaldia.** "Gazte espazioak eta autogestioa". 11:00 Askatasuna plazan.

■ **Gazte Eguna, mobilizazioa.** "Gazteon bizi proiektuekin zer?". 17:30 Mikel laboa plazan.

■ **Euskaraldia: "Esnatu naiz" kabareta.** 19:00 Sutegiko auditorioan.

Larunbat honetan, "Esnatu naiz" kabareta Euskaraldiaren eskutik

Euskaldun baserritar bat Londreseko *underground* mugimenduan nahastuko da, eta bi munduen onena azaleratuko du ikuskizunak. Barne al daketa eta sexu-joera zein identitatearen gaineko hausnaketa sortzeko bide ematen duela azaldu zigun Andoni Mutiloak. Bera da *Esnatu naiz* kabareteko aktorea eta zuzendaria.



Euskaraldiak antolatu du Andoni Mutiloaren ikuskizuna. Larunbat honetan, Sutegin.

Azaroak 28 larunbata

- Ordua: 19:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Sarrera: doan azaroaren 26a baino lehen, usurbilkultura.eus atarian.

- Edukiera: 78 pertsonentzako lekua.
- Antolatzailea: Euskaraldia Usurbil.

Maria Jesus Ettxeberriaren erakusketaz gozatzeko azken egunak

Argazkilaritzarako duen zaletasunari eutsi arren, konfinamenduan ezin kalera irteten, ezin irudirik atera eta etxealdi horretan, lehendik ere lantzen ari zen margolanak sortzeari ekin zion Maria Jesus Ettxeberriak. Bere orain arteko ibilbideko lanen emaitza duzue egunotan ikusgai Sutegin.

- Orduategia: 16:30-18:30.
- Tokia: Sutegiko erakustaretoa.



Erakusketa azaroaren 26an amaituko da.

Datozenak

Urte amaierarako ekitaldi ugari antolatu dituzte Santuenean

Kabi apaingarrien tailerra

Abenduaren 12rako gabonetako kabi apaingarrien tailerra. "Auzoko atari guztietan zabalduko da deia, auzotarrei parte hartzera gonbidatuz".

Abenduaren 18an, zuhaitzaren argiztapena

Abenduaren 18an gabonetako zuhaitza argiztatuko dute. Apaingarriak zuhaitzean zintzilikatzera animatzen dituzte herritarrak, bereziki txikiak. 19:00etan izango da eta gero txistor jana antolatu dute jubilatuen eta elkarteko taberna atarian, kanpoan. Hau ere egungo segurtasun neurrietara egokituta.

Musika, egunero

Gabonei begira; urte garai honetako musikarekin girotuko dute egunero bi orduz Santuenea.

Abenduaren 24an, Olentzeroren bisita

Eta Olentzero ere bisitan joango zaie abenduaren 24an. Covid-19 garaiotan etengabe gertatzen ari den moduan ordea, "aurten neurri bereziak hartuko dira", iragarri dute.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

www.noaUA.eus

USURBILGO ATARIA



INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN

EZ

ZAITEZ

IKUSLE

HUTS

BAT

IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



**egiteko
beste
modu bat**

herri batzarra

izena ematea beharrezkoa da: labur.eus/Z02hN 

Usurbilen

abenduren 5a, larunbata 10:30etan
Potxoenea Kultur Etxean

Landuko diren gaiak:

1. EH Bilduren plan politikoa:
Euskal Herritik, Usurbilera
2. Erraustegiaren aurkako
dinamikaren hausnarketa

ehbildu